

## *HIRUGARREN ERANSKINA*

### **ARANTZAZUKO BALADAK LEONARDO ZELAIAREN ORGANO-LAGUNTZAK**

#### **LZM: LZ1M eta LZ2M**

LZK deitu dugu Leonardo Zelaiak, hiltzean, bere artxiboan utzitako Arantzazuko baladen partitura sorta ugaria, non Arantzazuko baladen doinuen kopiak eta horien organorako moldaketak agertzen baitira (Arantzazuko Musika Artxiboa, Sec. K, carp. n° 100). Bi sortatan banatu ditugu horko partitura-paperak: LZ1M eta LZ2M.

LZ1M REA/JK-ko balada-doinuen eskuzko kopia da, Zelaiak beste norbaiti eragina nonbait –sortaren azkenean bere eskuz kopiatu zuen azken doinu bat, REA/JK koadernoan bertan aurkitu zuena–. Koadernoko partituren zenbaki eta ohar guztiak jaso zituen kopiatzaileak. Gero Zelaiak bere aldetik beste hainbat ohar gaineratu zuen, partiturak deskribatze aldera eta horiei buruzko ohar kritikoren batzuk ere eginez; honelakoen berri ematen saiatu gara doinu harmonizatu bakoitzaren azpian.

LZ2M, berriz, balada horien organo-laguntzen partituren sorta da, Zelaiak berak zirriboratu, zuzendu eta landutakoena. Ramon Udabek sorta nahasia argitzen saiatu da, eta burututzat edo landu-xamartutzat jo dituen harmonizazioak aukeratu ditu, eta horien notazio digitala egin. Horietxek eskaintzen ditugu Arantzazuko Abestien Bildumaren hirugarren eranskin honetan.

#### **Arantzazuko baladen harmonizazioak**

Arantzazuko baladen doinu solteak musikari hainbatek harmonizatu izan ditu, organo-laguntza konposatuz edo ahotsetara ipiniz; AAB honetan aurki daitezke horiek denak. Hona hemen horrelako nagusien zerrenda:

**Resurrección M. Azkue:** “Arantzazu aldean” (Z/038); “Birjiña Amaren bezpera” (Z/039); “Agustuaren [amaboskarren]” (Z/040).

**Jose Arrue:** “Nere Ama Birjina” (Z/078); “Agostuaren amaboskarren” (Z/079).

**Jesus Guridi:** “Arantzazura [egin dut promes]”: 1 (Z/087) eta 2 (Z/088); “Agostuaren [amabostgarren]” (Z/089).

**Tomas Garbizu:** “Arantzazu – Arantzazura [egin dut promes]” (Z/103); “Arantzazura” (Agostuaren amabostgarren): 1 (Z/104), 2 (Z/105), 3 (Z/106), 4 (Z/107).

**Anonimoak:** “Melodía de Ntra. Sra. de Aránzazu” (Z/187); “Goazen poz-alai Arantzazura” (Z/188), “Errodrigotxo Baltategiko” (Z/318”).

#### **Leonardo Zelaiaren harmonizazio-lan sistematikoa**

Zelaia fraide musikari eta konposatzailea oso zaletua zegoen gaztetatik Arantzazuko baladen doinuekin, eta horietako zenbait harmonizatzen saiatu zen. Horietako bere obra nagusia “Arantzazu aldean” kanta ezaguna da; I. Omaetxebarriak Arantzazuko balada-doinu bi bateratuak zituen, bere “Arantzazu al-

dean” kanta berriarentzat (1948): aurrenik, Olazagutiako Frantziska Bengoetxearengandik R. M. Azkuek jasotakoa (CPV, IX, 17-732 zenb., 851-852 or.; G2T, 085. or.) –koruarentzat–, eta “Nere Ama Birjiña Arantzazukoa” baladarena (REA/JK, XXV. doinua, 68. or.) –bakarlariarentzat–; kantaren harmonizazio ezagunena Zelaiari zor zaio (4 ahots eta organoa). Zelaia beraren beste hiru baladen harmonizazioak aurkitu ahal dira Arantzazuko Abestien Bilduma honetan : “Abuztuaren hamabosgarren” (REA/JK, III-bis doinua; Z/113), “Izar ederrak argi eiten dau” (REA/JK, XX. doinua; Z/114) eta “Neure Ama Birjiña Arantzazukoa” (REA/JK, XXII. doinua; Z/115).

Erroman bizi zela REA/JK koadernoko balada-doinu guztien harmonizazioari heldu nahi izan zion L. Zelaiak, eta horretarako eskatu zion bere iloba Joan Joxe Iturrioz, Arantzazun Teologiako ikasle zenari, koadernoaren fotokopia. Badirudi Erroman ez zuela aurrerabide handirik egiterik izan lan horretan. Euskal Herrira Tolosako komentura itzultzean, berriz, fotokopia hura Ignazio Omaetxebarriaren eskuetan geratua zen. Orduan, bere aspaldiko asmoari berriro heltzeko, batetik REA/JK koadernoko balada-doinu guztien fotokopia berria eragin zuen (LZK); baina horrekin batera baladen doinuen eskuzko kopia eragin zion norbaiti (LZ1M). Horien gain ekin zion doinuen azterketari eta horien organoko-laguntzak sistematikoki lantzeari. Sorta hauen deskripzio zehatzagorako, ik. P. Agirrebaltzategik editaturiko ADK (Arantzazu Dut Kantagai) liburu saileko lehen liburukia: *Arantzazu: Bost mendetako poemagintza* (2. atala).

Badirudi bere bizitzako azken urteetako duela lan hori Zelaiak: horren fruitua da, izan ere, beraren artxiboan aurkituriko LZ2M deitu dugun eskuzko partituren sorta ugaria eta aski nahasia. Horietako batzuk zirriborro hutsak dira, beste batzuk landuagoak, batzuk agian bukatutzat emandakoak –doinuren batzuren harmonizazioak, bereziki aurrenekoenak, behin eta berriro idatzi eta zuzendu zituen–. Adierazi dugunez, organo-laguntzak eskaintzera mugatu zuen bere harmonizazio-lana, abesteko doinuak beraien soiltasunean utzita.

Zelaiak ez zuen bere lana burutzerik izan, gaixoaldiak harrapatu zuelako, hil aurretik. Hala ere, egokia iruditu zaigu horren testigutza uztea Arantzazuko Abestien Bilduma honen eranskin moduan, besterik ezean. Irakurtzen eta interpretatzen zailak dira batzuetan eskuzko partiturok: horren berri ondo daki Ramon Udabek.

### Ramon Udaberen irakurketa eta interpretazioa

Izan ere, ahalegin eskerga egin du berak horiek ordenatu eta irakurtzen, eta horien notazio digitala egiten. Hona hemen lan horretatik ateratako argibideren batzuk:

1. *Badirudi aldi ezberdinetan jardun zela Zelaia harmonizazio-lan horretan: pentagramak horrelako zerbait adierazten dute, nahiz eta aldi ezberdinetako lanaren lotura harkatzaren erabilera izan daitekeen. Dena dela, dirudienez, 1985-1986 urteetan bere lana burutzea erabaki zuen itxuraz; ordurako lehen forma emana zien partiturei, eta urte horietan errotiladore urdin eta beltzaz baliatzen hasten da, partiturak berrantolatzeke eta zenbakien bidez finkatzeko.*

2. *Dena dela, batez ere ahalegin handiena ipinia zuen lehen baladen harmonizazioetan zalantzak ditu nabari artean. Lehen balada-doinuaren inguruan, adibidez 8 edo 9 saiakera eta aldaera ezberdinak ageri dira: denak eredu berdintsuaren inguruan, eta beraien artean bata ala bestea hobetsi ezinik. Gauza beretsua gertatu zitzaion 4., 5., 6. eta 8. doinuetan. Batzuetan aukeran uzten du aldaera bat baino gehiago, -bis eta -ter markaz zenbakituz. Dena dela, 10. doinutik aurrera badirudi erabakimen handiagoz heldu ziola bere lanari, eta ez zuela hainbesteko zalantzarik eduki harmonizazioari buruz –agian nekeak ere eraginda–.*

3. *Berak eskuetan zituen jatorriko balada batzuetan nota apaingarriak ageri ziren (“mordentes”, “corcheas con puntillo”, etab.). Alde batera utzi zituen Zelaiak horrelakoak: agian, koru-zuzendari izana bera, horrelako doinuak interpretatzeko sentiberatasun musikal ezberdina zuelako.*

4. *Begirune handikoa ageri da Zelaia aurrekoek egindako lanari eta iturritzat dituen materialei buruz: bai testuari eta bai partiturei buruz ohar kritikoak egitean, eta bere ustezko okerrak edo zalantzak seinaltatzean.*

**Doinuen notazio digitalaren lana**

Doinuren batzuetan harmonizazio-aldaera bat baino gehiago aukeratu eta jaso dugu, bakoitzean landuenak; horietako lehen probakoak edo landugabeak edota osatugabekoren gutxi batzuk kanpoan geratu dira, beraz.

L. Zelaiak ez zuen kanta-doinua bera jaso bere harmonizazio-partituretan. Horien notazio digitala egitean, doinuak ere sartu egin ditugu, Zelaiak berak erabilitako LZ1M kopian oinarrituz. Era berean, Zelaiak ez zuen baladaren testua kopiatu bere partituretan; geure aldetik sartu dugu, REA/JK oinarritzko koadernoan baliatuz. Orobat, geure aldetik sartu ditugu batzuetan partituretako konpas-indikazioak, Zelaiak idatzi gabe utzi zituenetan.

**Oharrak eta iturri-indikazioak**

Zelaiaren harmonizazioek REA/JK koadernoan eta bertako balada-doinuak dituzte zuzeneko iturritzat; hala ere, batzuetan lehenagoko beste iturriren batetik jasoak dira horko baladak (R. M. Azkue, M. Lekuona). Partitura bakoitzean baladaren indikazio bibliografiko oinarritzkoa eman dugu: kanta-biltzailearen izena (eta jatorrizko iturria, REA/JK-ren aurretikorik dagoenean) eta lekukoaren izena, jakin dakigunean. Gainera balada-doinuen REA/JK-ko erreferentzia seinalatu dugu: doinuaren zenbakia eta Koadernoko orrialdea; horrekin batera, harmonizazio-partituren artxibo-erreferentzia gaineratu dugu: horien LZ2M-ko orrialdea eta zenbakia: adibidez, LZ2M, 1/3 (1).

Horretarako geure aldetik ordenatu eta orrialdeka zenbakitu behar izan ditugu Zelaiaren partitura-sortak. LZ1M sorta balada-doinuen zenbakien arabera ordenatuta eman zuen kopiatzaileak berak; LZ2M-ko partituren paperak, berriz, inolako ordenarik gabe aurkitu genituen artxiboan; eta geure aldetik ordenatu ditugu bidezkoen iruditu izan zaigun bezala. Sorta bateko eta besteko orriak eta orrialdeak geure aldetik zenbakitu ditugu ordenan, horien aipamenak errazteko. LZ2M sortako orrialdeak zenbaki bikoitzarekin seinalatu ditugu: 1/1, 1/2, 1/3; 2/1, 2/2... eta horrela.

Partituren argigarritzat, oharrak gaineratu ditugu batzuetan horien azpian; Zelaiarengandik beragandik hartuak batzuk, partituren irakurketa kritikoak iradokiak beste batzuk; eta Zelaiaren lana ezagutu eta ulertzeko lagungarri izan daitekeen beste hainbat.

Merezi zuela uste izan dugu, Arantzazuko baladen harmonizazio-lan sistematiko honen emaitza musikariaren eskuetan ipintzeak. Nekeak neke eta arriskuak arrisku, ausartu egin gara geure aldetik notazio digitala ematen, ahal izan dugun jatorrena, jabeturik, beti ere, partituren irakurketa- eta interpretazio-okerrak egongo direla tartean. Zelaiaren harmonizazio-lan hau sakonago eta zorrotzago aztertu edota hori burutu nahi lukeenak eskura dauka haren ahaleginaren fruitua, ahal izan dugun egokien txukunduta.

Ramon Udabe  
Paulo Agirrebaltzategi